



Andutzeta auzoa 15, 3. Solairua 31760 ETXALAR Tfnoa. 948 635 036  
info@bortziriakgz.eus  
**www.bortziriakgz.eus**  
Facebook: Bortziriako Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea  
Instagram: @bortziriakgz

Lesakako San Ferminetarako bertze urte batez BESTABUSA zerbitzua antolatu da. Bi autobusek egingo dituzte Bortziriako herrien arteko joan-etorriak (atxikirik ordutegiak).

Zerbitzu honen oinarrian kontsumo ohitura osasungarriak sustatzea dago; maiz jai giroa, sustantzien kontsumoekin lotura zuzen bidez batzen dugun aukera izan arren, norbere erabakiak ez dute zertan norabide horretan egon behar. Hortaz, sustantzien kontsumo (izan legal zein ilegalak) gabeko bestak ere, zoragarriak izan daitezke. Aitzitik, kontsumitzearen aldeko hautua eginen duenarentzat, errepideko istripuak saiheste aldera eta etxerako itzulera segurtasun handixagoz egiteko aukera emateko, bus zerbitzuak antolatu dira ostiral eta larunbat gauerako (uztailak 5 eta 6).

Lesakako San Ferminetarako bisita, eskualdeko askoren asmoetan egon ohi den aukera da eta horretarako garraio publikoa indartuko da, abiapuntu desberdinetatik bus zerbitzuak eskainiz. Hauen geltokia herri sarrerako biribilgunea izango da. Aitzitik Bortziriarren joan-etorri aukera **BESTABUSA** zerbitzua jarriz eskainiko da eta zerbitzu honen erabiltzaileen **GELTOKIA, SUHILTZAILE PARKEAN** egonen da. Jendetzak erabili ohi duen joan-etorri zerbitzu publiko honen antolakuntza taldeak autobusaren inguruan arduraz jokatzeko ondoko oharrak zabaltzen ditu:

- Suhiltzaile parke inguruan busak beharrezko dituen espazioak libre utzi: autoak ez aparkatu suhiltzaile eta fabrika sarrera inguruko errepide bazterrean, autobusaren maniobra lekuak libre utzi,...
- Autobus barnean: ibilgailuarekiko eta bertako langilegoarekiko errespetua agertu
- Erabiltzaile ororekiko errespetua izan

Hortaz, Bortziriari erabiltzaileei jakinarazten zaie **BESTABUSAREN GELTOKIA SUHILTZAILE PARKE ONDOAN IZANEN DELA**.

*En San Fermín de Lesaka se ofrecerá el servicio de BESTABUSA para hacer los trayectos nocturnos del fin de semana desde los pueblos de Bortziriak a Lesaka. **La parada estará en el parque de bomberos.***

*Este servicio se enmarca dentro de las acciones preventivas; ya que su objetivo principal es la disminución de los riesgos asociados al consumo de sustancias. Queremos subrayar que la decisión de consumir o no consumir depende de cada persona y que cada cual tiene que valorar, decidir y expresar su decisión.*

*Se invita a venir a Lesaka, en la medida de lo posible, en transporte colectivo. Para ello se reforzarán los traslados en BUS con parada en la rotonda de la entrada. Y se ofrecerá BESTABUSA el viernes y sábado con parada en el parque de bomberos. Si accedes en coche propio no estaciones en la zona de acceso a la fábrica ni parque de bomberos, ya que se usará como zona de maniobra y parada.*